

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERABEITIKO UDALA

#### Onestea Erriberabeitiko Udalaren eta Igaiko kontzejuaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Igaiko herrigunean kaleak eta espazio publikoak garbitzeko zerbitzua emateko

Erriberabeitiko Udalak, 2023ko urriaren 19an egindako ohiko bilkuran, hitzarmena onetsi zuen. Honela dio, hitzez hitz:

#### “ERRIBERABEITIKO UDALAREN ETA IGAIKO KONTZEJUAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, IGAIKO HERRIGUNEAN KALEAK ETA ESPazio PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO

Ribabellosan,

#### BILDU DIRA

Alde batetik, Amado Martínez de Iturrate, Erriberabeitiko Udaleko alkate-lehendakaria den aldetik.

Bestetik, José Luis Urtaran Urteaga jauna, Igaiko kontzejuko errejidore-lehendakaria den aldetik, eta Igaiko kontzejuaren erabakiz hitzarmen hau sinatzeko berariazko ahalmena duena.

#### ADIERAZTEN DUTE

I. Arabako Lurralde Historikoko kontzejuek, bat etorri 1995eko martxoaren 20ko Kontzejuen Foru Arauaren 7. artikuluan xedatutakoarekin, honako eskumen hauek dituzte, besteak beste: erakundearen titulartasuneko erabilera edo zerbitzu publikoko instalazioak eraiki, handitu, kontserbatu eta konpontzea, bai eta kontzejuaren lurralde eremuan eta haren interes espezifikoei dagozkien obrak programatu, proiektatu eta gauzatzea eta bestelako zerbitzuak ematea ere.

II. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25 artikulua-  
ren arabera, udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzokideen  
beharrizanak eta nahiak asetzen lagunduko duten jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak  
eman ditzake, artikulua horretan ezarritako baldintzetan eta bere eskumenen bidez, Estatuko  
eta autonomia erkidegoetako legedian ezarritako baldintzetan, besteak beste, osasun publikoa  
babestearen arloan.

III. 11/1995 Foru Arauaren 45. artikulua ezartzen du kontzejuek eta gainerako toki erakun-  
deek, elkarren arteko harremanetan, elkarri informazioa eman, lankidetzan aritu eta bakoitzaren  
eskumen esparruak errespetatuko dituztela.

IV. Erriberabeitiko Udalak eta Igaiko kontzejuak adierazitako helburuarekin lankidetzaren  
hitzarmena sinatzeak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzen du, zerbitzu publikoak  
batera erabiltzea errazten du, onura publikoko jarduerak egiten laguntzen du eta aurrekontu  
egonkortasunari eta jasangarritasun finantzarioari buruzko legeria betetzen du.

Baldintza horiek betetzen direla irizita, alderdiek hitzarmen hau sinatzeko beharrezkoa den  
legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta honako hau

## ADOSTEN DUTE

LEHENENGOA. Hitzarmenaren xedea.

Igaiko kontzejuak, 2024ko martxoaren 2an hartutako erabakiaren bidez, lankidetzaz hitzarmena sinatzen du Erriberabeitiko Udalarekin, Igaiko herrigunean kaleak eta espazio publikoak garbitzeko zerbitzua emateko kudeaketa esleitzeko.

Erriberabeitiko Udalak bere gain hartzen du Erriberabeitiko udalerria osatzen duten toki erakundeen herriguneetako lurralde osoan bideak eta espazio publikoak garbitzeko zerbitzua ematea, eta, beraz, baita Igaiko kontzejuko lurraldean ere.

Xede horrekin, Erriberabeitiko Udalak lizitazio baterako deialdia egitea erabaki du, prozedura ireki bidez, zerbitzu ematea adjudikatzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA. Edukia, irismena eta mugak.

Hitzarmen honen eremuan eta irismenean, Igaiko kontzejuari dagokionez, kontratuaren lizitazioa arautuko duen baldintza teknikoen agirian jasotako lanak baino ez dira sartzen, eta ezin izango da inolako aldaketarik egin Igaiko kontzejuak eskatuta, eta kontzejuak ezin du kontratuan jaso ez den aparteko lanik enkargatu, eta, beraz, udalak ez du lan horiek ordaintzeko betebeharririk izango.

Zerbitzuaren ordainetan, Erriberabeitiko Udalak ikusten badu kontzejuaren lurralde eremuan txakurrak egoteko gune bat behar dela, Igaiko kontzejuak konpromisoa hartzen du eremu hori erabiltzeko baimena emateko legez behar diren kudeaketak egiteko.

HIRUGARRENA. Indarraldia eta indarrean jartzea.

Hitzarmen hau bi erakunde sinatzaileetako organo eskudunek onetsi, sinatu eta ALHAOn argitaratutakoan jarriko da indarrean.

Hori gorabehera, Erriberabeitiko Udalak eta adjudikaziodunak sinatzen duten zerbitzu kontratuaren hasiera egunean jarriko da benetan indarrean.

Hitzarmenaren hasierako iraupen epea bat etorriko da lizitazioaren ondoren sinatzen den kontratuaren hasierako epearekin, eta indarraldia hari lotuta geratuko da.

Kontratu horren hasierako epea luzatzen bada, hitzarmen hau ere beste horrenbeste luzatuko da.

Lizitatuko den kontratuaren indarraldia amaitu ondoren Erriberabeitiko Udalak zerbitzua emateko beste edozein modu aukeratzen badu, aztertu beharko da kudeaketa esleipeneko hitzarmen hau luzatzea egokia den edo zerbitzua emateko baldintza berrietara egokitutako beste hitzarmen bat sinatu behar den.

LAUGARRENA. Hitzarmenaren jarraipena.

Zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko, Igaiko kontzejuak administrazio batzarreko kide bat izendatuko du, Erriberabeitiko Udalarekin harremanetan egongo dena, lanen kontrola eta jarraipena egiteko, udalak sinatzen duen kontratuaren indarraldi osoan.

Igaiko kontzejuak idazki bat aurkeztu beharko du udaleko sarrera erregistroan, aurreko paragrafoan izendatutako pertsonak sinatua, hamar egun baliouduneko epean, kontratuaren xede den kontzejuko jarduketara bakoitza egin eta hurrengo egunetik hasita. Idazki horretan, jarduketaren data eta esku hartzearekiko gogobetetze maila adierazi beharko dira.

Betebehar hori ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izan daiteke.

BOSGARRENA. Finantzaketa.

Erriberabeitiko Udalak bere gain hartuko du, udal aurrekontuaren kontura, Erriberabeitiko udalerrian kaleak eta espazio publikoak garbitzeko zerbitzua emateko lizitazioaren ondoren sinatzen den kontratuaren prezioaren finantzaketa osoa.

Igaiko kontzejuak Igain kaleak garbitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharrekoa udalak administrazio batzarrei xede horretarako ematen dizkien dirulaguntzekin konpentsatzen da, eta, horrenbestez, kontzejuak ezin ditu dirulaguntza horiek inolaz ere jaso.

SEIGARRENA. Azkentzea.

Honako hitzarmen hau azkenduko da xede dituen jarduketak betetzen direnean edo hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat gertatzen denean.

2. Kontratua suntsiarazteko arrazoiak:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmena luzatzea adostu gabe.

b) Sinatzaile guztien ahobatezko akordioa.

c) Sinatzailearen batek ez betetzea bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak.

Kasu horretan, aldeetako edozeinek errekerimendua igorri ahalko dio bete beharrekoa bete ez duen aldeari, bete gabetzat jotako konpromiso eta betebeharrak epe jakin batean bete ditzan. Errekerimendua hitzarmena gauzatzearen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoaren arduradunari eta gainerako sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren bete gabetzat jotakoak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua igorri duen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die hitzarmena suntsiarazteko arrazoietako bat gertatu dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Hitzarmena arrazoi horregatik suntsiarazten bada, sortutako kalteen ordaina eskatu ahal izango da, hala jasota badago.

d) Ebazpen judizial batek hitzarmena deuseza dela adieraztea.

e) Aurretik aipatutakoen artean ez dagoen eta hitzarmenean edo beste lege batzuetan jasotzen den edozein arrazoi.

Erriberabeitiko Udalak kaleak eta espazio publikoak garbitzeko zerbitzua emateko sinatutako zerbitzu kontratuaren indarraldia amaitu baino lehen errebokatzeko badu hitzarmena Igaiko kontzejuak, bere gain hartu beharko ditu horren ondoriozko gastuak, kontratuaren indarraldia amaitu arte.

ZORTZIGARRENA. Hitzarmenaren araubide juridikoa.

Hitzarmen honek administrazio izaera dauka.

BEDERATZIGARRENA. Jurisdikzio eskumena.

Gasteizko administrazioarekiko auzietako epaitegiak dira hitzarmen honen inguruan aurkeztu diren errekurtsuez arduratzeko eskumena duten jurisdikzio organoak.

Eta ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Alkatea. Sin.: Amado Martínez de Iturrate Cuartango.

Errejidore-lehendakaria. Sin.: Jose Luis Urtaran Urteaga.”

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da, bat etorritik Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.8. artikuluan xedatutakoarekin.

Ribabellosa, 2024ko apirilaren 17a

*Alkatea*

**AMADO MARTÍNEZ DE ITURRATE CUARTANGO**